



**2013KO APIRILAREN 26KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko apirilaren hogeita seian, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Haizea Mendia Insausti.

Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko apirilaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 19 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HOGEITA ZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA HEMERETZI EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMO (28.719,36 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- 15 H.J.A.REN A.30 LURSAILAREN XEHETASUN AZTERKETAREN HASIERAKO ONARPENA.-

Jesus Mendia Elizburu J.k, 15.219.427-H N.A.N.dunak, Lazkaon, Mikelar 32an bizi denak, bere izenean, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 15 Hirigintz Jarduketa Arearen a.30 lursailaren jabea den partetik, Mikelar 32, lursail horren gaineko xehetasun azterketa aurkeztu du. Xehetasun azterketa Kele Lasa Aiestaran eta Ibon Astegia Begiristain arkitektoek idatzitakoa da eta 2013ko martxoa data darama.

Xehetasun azterketaren xedea gaur egungo garajea handitzea da.

Aurkeztutako dokumentuaren eta bere inguruan luzatutako txosten teknikoaren aurrean, eta Hirigintza Batzordearen proposmenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarra, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

Lehena: Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 15 H.J.A.ren a.30 lursailaren - Mikelar 32- Xehetasun Azterketa, Kele Lasa Aiestaran eta Ibon Astegia Begiristain arkitektoek idatzitakoa eta 2013ko martxoko data daramana, hasierako izaeraz onartzea.



Bigarrena: 20 eguneko denboraldiz jendaurreko erakustaldi tramitea irekitzea, iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Berria eta Gara egunkarietan argitaratuz, eta interesatuei banakako jakinarazpenak eginez, edozeinek aztertu eta alegazioak aurkezte ondorioetarako.

IV.- BENEDITARREN FUNDAZIOARI DIRULAGUNTZA .-

Udalaren 2013ko aurrekontuan, Lazkaoko Beneditarren Fundazioarentzat hogeita mila (20.000 €) euroko dirulaguntza partida bat aurreikusten da.

2013ko otsailaren 15ean egindako Tokiko Gobernu Batzarrak, dirulaguntza horretatik hamar mila (10.000 €) euro ordaintzea erabaki zuen.

Orain beste hamar mila (10.000 €) euroak ordaintzea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin proposamena onartzea erabakitzen du.

V.- HITZARI DIRULAGUNTZA .-

Udalaren 2013ko aurrekontuan, Goierriko Hitzarentzat zortzi mila eta ehun (8.100 €) euroko dirulaguntza partida bat aurreikusten da.

Dirulaguntza partida horretatik orain erdia, hau da, lau mila eta berrogeita hamar (4.050 €) ordaintzea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin proposamena onartzea erabakitzen du.

VI.- UDAKO KIROL KANPAINA.-

Kirol Batzordetik Udako Kirol Kanpaina 2013 egitasmoa aurkezten da. Kanpaina hau ekainaren 24tik uztailaren 19ra bitartean burutuko da. Kanpaina honen aurrekontua hamabost mila eta berrogeita hemeretzi eurokoa (15.159 €) da eta ikastaroen diru-sarrerak eta Foru Aldundiko dirulaguntza kontutan izanda aurrikusitako defizita hiru mila bostehun eta laurogeita sei (3.586 €) eurokoa da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, egitasmoa, bere espedientean dagoena, aztertu ondoren, Udako Kirol Kanpaina 2013 hau onartzea erabakitzen du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]